



ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA 2016

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

HAUTAKETA-PROZESUAREN INFORMAZIOA IKUSTEKO, **BEHIN ESKABIDEA BETETA**

Data: 2016ko otsailaren 5a

Hautaketa-prozesuan argitaratuko den informazioa, izangaiaren espedienteari buruzkoa, irakasle-gunean ikusgai egongo da; bertara sartzeko hurrengo Interneteko helbidearen bidez izango da: <http://www.irakasle.eus> (“Erabiltzailea” eta “Pasahitza” sartuz).

- **Pasahitza duten izangaiek**, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emateagatik (pasahitz hori lehendik dute 2015/2016 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkapenentarako izangaien zerrendan daudelako edo bestelako prozesuetan parte hartu dutelako): pasahitza hori erabiliz egingo dute. “Erabiltzailea” izangaiaren NANA izango da.

Pasahitza ez badute gogoratzen edo galdu egin badute: beste bat lortu ahal izango dute helbide horretan, «Pasahitza eskuratzea (edo berreskuratzea)» izeneko atalean.

- **Pasahitza ez duten izangaiek**: sistemak bat esleituko die; pasahitz hori sms baten bidez jasoko dute, eskaeran adierazitako telefono mugikorrean, eskaria betetzen bukatzen dutenean. Izangaiaren NANA izango da “Erabiltzailea”.

GARRANTZITSUA pasahitza inoiz eduki ez duten izangaientzat:

- Izangaiak telefono mugikorra atala (derrigorrez) bete behar du eskabidean, irakasle-gunean sartzeko beharrezkoa den pasahitza mugikorraren bidez bidaliko baitzaio. Pasahitza duenak, edo uneren batean eduki duenak, sms ez du jasoko; gogoratzen ez badu, pasahitza berreskuratu beharko du.
- Izangaiak ez badu jasotzen sms pasahitzarekin (inoiz eduki ez duelako jaso behar badu), egiaztatu behar du eskabidean sartu duen telefono mugikorra zuzena dela. Pasahitza berehala bidaliko da, eskabidea bete eta itxi ondoren. Telefono mugikorra zuzena izan arren sms ez badu jasotzen, CAU-ra deitu beharko du (tel 901101132).
- Erabiltzailea eta pasahitza erabiliko dira irakasle-gunean hautaketa-prozesuari buruz argitaratuko den informazioa ikusteko; horretara bakarrik sartu ahal izango dira eskabidea bete duten izangaiek.
- Sms bidez bidaliko den pasahitza iraungituta egongo da sartzenean, segurtasun arrazoiak direla-eta; sistemak adieraziko dio izangaiari haren pasahitza aukeratu behar duela.